

BALDINTZA TEKNIKO ETA ADMINISTRATIBOEN AGIRIA
DEMA-ENPLEGU ETA EKINTZAILATZA FORU AGENTZIAREN EGOITZA SOZIALA ETA BULEGOAK
GARBITZEKO ZERBITZUA

ADJUDIKATZEKO MODUA:	Prozedura ireki SINPLIFIKATUA
KONTRATUAREN XEDEA:	DEMA-Enplegu eta Ekintzailatza Foru Agentziaren egoitza soziala eta bulegoak garbitzeko zerbitzua
ZERBITZUAREN BALIO ZENBATETSIA:	38.000 € (gehi BEZa)
KONTSUMIGARRIEN PREZIOA:	Aleko prezioa. Kontsumoaren arabera fakturatuko da.
ADJUDIKAZIOAREN EPEA:	24 HILABETE
KONTRATUAREN HASIERA:	2021/01/01
KONTRATUAREN AMAIERA:	2022/12/31
URTEKO LUZAPENA:	BAI.
LUZAPEN KOP.:	2
LUZAPEN BAKOITZAREN ZENBATEKOA:	19.000 €

1.- XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA

SPKLren 17. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratuaren xedea honako zerbitzu hau ematea da: "DEMA-Enplegu eta Ekintzailatza Foru Agentziaren (aurrerantzean, DEMA) egoitza soziala eta bulegoak garbitzea", Barakaldoko Elkartegi eraikinean (Fanderia kalea, 2).

Agiri honen ebazpenaren ondoriozko kontratuaren xedea DEMAren egoitza soziala eta bulegoak garbitzeko zerbitzua kontratatzea izango da.

Kontratu honen aplikazio eremua DEMAk enpresa jarduera garatzen duen instalazio hauek izango dira:

- **Barakaldoko Elkartegi eraikineko 104. modulua (azalera: 732 m²):** espazio horretan 40 lanpostu daude (banakako mahaia, ekipo informatikoa, telefonoa), apalak, balioanitzeko 5 areto, gizezkoen 2 komun, emakumeen 2 komun, sukaldea eta artxiboa.
- **Barakaldoko Elkartegi eraikineko 103. modulua (azalera: 87,5 m²):** espazio horretan balioanitzeko gela bat dago, aulki, mahaia eta apalekin.

2.- EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA, ALDIZKAKOTASUNA ETA ORDUTEGIA

2.1 GARBIKETA JARDUERA

Jarraian, Barakaldoko Elkartegi eraikineko 104. moduluan (azalera: 732 m²) egin behar diren garbiketako jarduerak deskribatu eta zenbateko maiztasunarekin egin behar diren zehaztuko dugu:

EGUNERO egin beharreko jarduerak:

- Lurra garbitzea, erratza eta lanbasa erabilita.
- Mocketak xurgatzea (Garbiketa Enpresaren xurgagailuarekin).
- Altzarietan hautsa kendu eta garbiketa sakona egitea.
- Gailu informatikoak garbitzea.
- Zakarrontziak hustea.
- Konketak eta komunak garbitu eta desinfektatzea.
- SUKALDEKO gainazalak garbitzea: mahaia, gainekoak, harraska.
- Mikrouhin labea garbitzea.
- Kontsumigarriak aldatzea.
- Hondakinak jaso eta bilketa puntuan uztea.

ASTEAN BEHIN egin beharreko jarduerak:

- Metalak garbitzea: heldulekuak, ateetako eskutokiak eta antzeko elementuak.

HAMABOST EGUNEAN BEHIN egin beharrekoak:

- Instalazioetan dauden landareak ureztatzea (10 jardinerara).
- Sukaldeko altzariak sakonki garbitzea: mahaia, gainekoak, hozkailua barrutik eta kanpotik, mikrouhin labea eta sukaldeko altzariak.

BI HILEAN BEHIN leihotako kristal guztiak barrutik eta kanpotik garbitu behar dira. Horretarako, lan hori otsaileko, apirileko, ekaineko, abuztuko, urriko eta abenduko azken astean egin behar da nahitaez.

Garbiketa hori egiten den bakoitzean, enpresa adjudikaziodunak lan partea aurkeztu beharko dio kontratuan horretarako izendatzen den DEMAko pertsonari; pertsona horrek parte hori sinatu eta zigilatuko du, ados dagoela adierazteko.

URTEAN BEHIN moketa garbitu behar da, xanpua eta makina birakaria erabilita, eta lurra leundu eta distira eman behar zaio, makina berezia erabilita.

Jarraian, Barakaldoko Elkartegi eraikineko 103. moduluan (azalera: 87,5 m²) egin behar diren garbiketako jarduerak deskribatu eta zenbateko maiztasunarekin egin behar diren zehaztuko dugu:

ASTEAN BEHIN egin beharreko jarduerak:

- Lurra garbitzea, erratza eta lanbasa erabilita.
- Altzarietan hautsa kendu eta garbiketa sakona egitea.
- Gailu informatikoak garbitzea.
- Zakarrontziak eta hautsontziak hustea.

Maiztasunak aldatu ahal izango dira bulegoetako premien eta funtzionamenduaren arabera.

Garbiketa zerbitzu honen prezioaren barruan sartuko da garbiketa lan hori egiteko behar diren produktu, makina eta gailuez hornitzea.

2.2.- KONTSUMIGARRIEN HORNIDURA

Enpresa adjudikazioduna honako kontsumigarri hauen horniduraz arduratuko da:

- Komuneko paper industrialia.
- Eskuak lehortzeko paper bobina.
- Eskuak garbitzeko gela banagailurako.
- Zabor poltsak, zakarrontzien neurrikoak. (25 l.)
- Zabor poltsak, pertzen neurrikoak. (25 l.)
- Likido hidroalkoholikoa.
- Tisuak.

Kontsumigarri horien prezioak garbiketa zerbitzuaren prezioetik kanpo egongo dira, eta kontsumoaren arabera fakturatuko dira.

Kontratututako pertsonak enpresa adjudikaziodunari eskatu beharko dizkio bai lan guztiak egiteko beharrezkoak diren garbiketa produktuak, bai kontsumigarriak. Eskaera aurrerapen nahikoarekin egin behar da eta, nolana ere, zentzuzko stock bat izatearren beti.

Garbiketako produktu oso biodegradagarriak erabili behar dira, eta ez dute izan behar pertsonen osasunerako arriskutsua den substantziarik, ezta higiezinaren, makinaren, altzarien eta tresnen mantentze lanetarako eta kontserbaziorako arriskutsua denik ere.

COVID-19a dela eta, lurra garbitzeko eta gainerako altzariak garbitzeko erabiltzen diren produktuek desinfektatzaileak izan behar dute.

Atal honetan deskribatu ditugun garbiketako ekintza guztiak astelehenetik ostiralera bitarte egingo dira, – egunean 4 orduz – astean 20 orduz, 17:00etatik 21:00etara, lanegunetan. DEMAko langileen laneko egutegia eta ordutegia zein den jakitearren, urte hasieran horien kopia bat emango zaio enpresa adjudikaziodunari.

3.- ADJUDIKAZIOAREN EPEA

Adjudikazioaren epea 24 hilabete izango da, 2021eko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra bitarte.

Epea amaitutakoan, 12na hilabeteko 2 luzapen aurreikusitakoak dira, betiere DEMA nahi izanez gero. Horregatik, kontratua edo kontratuaren luzapena amaitu baino bi hilabete lehenago, kontratazio organoak luzapena egitea egokia den ala ez erabakiko du eta, edonola ere, enpresa adjudikaziodunak nahitaez bete beharko du, SPKLren 29.2 artikuluan xedatzen denez.

4.- ZERBITZUAREN BALIO ZENBATETSIA:

Kalitatearen eta prezioaren arteko erlazio hobereana duen eskaintzari adjudikatzeko prozesuan honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

4.1.- GARBIKETA JARDUEREN BALIO ZENBATETSIA

2.1 puntuan zehaztutako zerbitzu guztiei dagokien gehieneko prezioa ez da izango, inolaz ere, **HOGEITA HEMEZORTZI MILA EURO (38.000.-€), gehi BEZa** baino handiagoa, lehenengo 24 hilabeteetan.

Hala badagokio, egiten den urteko luzapen bakoitzeko prezioa lehenengo urteko prezioaren berdina izango da. **(19.000.- €)**.

Balio zenbatetsi horretan sartuko dira garbiketa zerbitzua, eta garbiketa lan hori egiteko behar diren produktu, makina eta gailuak.

4.2.- KONTSUMIGARRIEN HORNIDURAREN PREZIOA

2.2 puntuan adierazitako kontsumigarrien konparatiba egingo da.

Prezioak berrikustea: urtero berrikusiko da **kontratuaren prezioa, eta urtetik urterako KPIa igoko da; igoera hori urte bakoitzeko urtarriaren 1etik hasita aplikatuko da.**

Sektoreko Hitzarmen Kolektiboan soldatak berrikustea aurreikusten bada eta langileari aplikatu beharreko KPIa baino handiagoa baldin bada, Hitzarmeneko aplikatuko da.

Ordaintzeko modua: Hilean behin prezioaren hogeitalauren bat fakturatuko da, gehi BEZaren % 21a. Hilean behin, hornitutako kontsumigarriak fakturatuko dira (aparteko faktura batean).

Faktura jasotzen denetik, gehienez ere hogeita hamar (30) eguneko epean egin behar da ordainketa.

Zerbitzua aldatzea edo etetea eta, horren ondorioz, adjudikatutako zenbatekoak aldatzea: Zerbitzuak murriztea edo areagotzea erabakiz gero, zerbitzuaren prezioa proportzioan txikitu edo handituko da. DEMAk, gerora sortutako arrazoiengatik, zerbitzua aldi baterako edo behin betiko eten behar izango balu, adjudikaziodunari jakinarazi behar dio, eta zerbitzuaren prezioa proportzioan aldatuko da. Kasu horietan adjudikaziodunak ez du izango kalte eta/edo galeren erreklamazioa egiteko eskubiderik.

5.- GAITASUNAREN ETA KAUDIMENAREN GUTXIENKO BETEKIZUNAK:

Kontratazio prozedura honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridikoek, betiere **kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzen badute** eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan xedatutako kontratatze debekuetako baten eraginpean ez badaude. Era berean, kontratuaren xede diren prestazioak egiteko eska daitekeen enpresa edo lanbide gaikuntza eduki beharko dute, hala badagokio.

Enpresa eskatzaileek bete beharreko gutxieneko kaudimen-baldintzak jarraian zehaztuko ditugu. DEMAk kaudimena egiaztatzeko agiriak eskatuko dizkio soilik adjudikaziodun izaten den enpresari.

5.1.- EKONOMIA ETA FINANTZA KAUDIMENA:

Enpresa adjudikaziodunaren fidagarritasuna bermatzeko adinako **kaudimena egiaztatzea ekonomiari eta finantzei dagokienez**. Betekizunak honako hauek izango dira, eta **I. ERANSKINAREN bitartez egiaztatu behar dira**:

- Azken bi ekitaldietako negozio zifra globalari buruzko adierazpena, Urteko Kontuen arabera, urtean 100.000 eurotik gorako negozio zifra izanik.
- Erantzukizun zibil profesionaleko aseguruia izatearen frogagiria, aseguraturutako gutxieneko zenbatekoa 600.000 € izanik.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

5.2.- KAUDIMEN TEKNIKO-PROFESIONALA:

2. puntuan deskribatutako zerbitzua gauzatzeko adinako antolaketa gaitasuna ez ezik, ezagutza teknikoa, eraginkortasuna, esperientzia eta fidagarritasuna ere egiaztatzea. Betekizunak honako hauek izango dira, eta **II. ERANSKINAREN bitartez egiaztatu behar dira**:

- **Aurreko lanen zerrenda**: antzeko bulego edo instalazioen garbiketan izandako esperientzia, gutxienez 2 urtez eta urteko gutxieneko fakturazioa 40.000 € izanik.
- Zerbitzua egiteko dituen **baliabide materialen eta giza baliabideen zerrenda**

6.- ESKAINTZAK BALORATZEA

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKA DAITEZKEEN BALORAZIO IRIZPIDEAK

DEMAk honako **irizpide** hauek izango ditu kontuan kontratua adjudikatzeko erabakia hartzeko garaian:

a) Eskaintza ekonomikoa (90 puntu). Puntu gehien izango ditu ikuspegi ekonomikotik onena den proposamenak. Honako formula hau aplikatuko da, bi zatitan:

- Garbiketa zerbitzuari (2.1 puntua) dagokion eskaintzaren prezioa: 85 puntu

Aurkeztutako eskaintzaren puntuazioa = (Ekonomikoki onena den eskaintzaren balioa ÷ Aurkeztutako eskaintzaren balioa) X 85

- Eskatutako kontsumigarrien (2.2 puntua) batukariaren prezioa: 5 puntu

Aurkeztutako eskaintzaren puntuazioa = (Ekonomikoki onena den eskaintzaren balioa ÷ Aurkeztutako eskaintzaren balioa) X 5

b) Plantillan kontratatutako lagunen kopurua (5 puntu). Puntuazio hauek emango dira:

- 1-10 laguneko plantilla: puntu 1.
- 11-50 laguneko plantilla: 3 puntu.
- 50 lagunetik gorako plantilla: 5 puntu.

c) Bulegoak garbitzeko zerbitzuetan izandako esperientzia –urteak– (5 puntu). Puntuazio hauek emango dira:

- 2-5 urteko esperientzia: puntu 1.
- 5-10 urteko esperientzia: 3 puntu.
- 10 urtetik gorako esperientzia: 5 puntu.

7.- HAUTAGAITZAK AURKEZTEA

Adjudikazio prozeduran parte hartzeko honako gutun azal hauek aurkeztu behar dira, zehaztuko den dokumentazioarekin:

A GUTUN AZALA: testu hau izango du idatzita: **“ENPRESAREN GAITASUNAREN ETA KAUDIMENAREN EGIAZTAPENA”**

Gutun azalaren barruan, enpresaren izena, IFZ, parte-hartze eskaera sinatu duenaren izen-abizenak eta zer bezala sinatu duen zehaztu behar da; gutun azalak sinatuta eta itxita egon behar du.

A gutun azal horretan, I. eta II. eranskinetako erantzukizunpeko adierazpenak sartu behar dira, behar bezala bete eta sinatuta.

B GUTUN AZALA: testu hau izango du idatzita: **“DEMA-ENPLEGU ETA EKINTZAIETZA FORU AGENTZIAREN EGOITZA SOZIALAREN ETA BULEGOEN GARBIKETA ZERBITZUA EMATEKO PROPOSAMEN TEKNIKOA ETA EKONOMIKOA”**

Gutun azalaren barruan, enpresaren izena, IFZ, parte-hartze eskaera sinatu duenaren izen-abizenak eta zer bezala sinatu duen adierazi behar dira; gutun azalak sinatuta eta itxita egon behar du.

B gutun azal horretan, honako dokumentazio hau sartu behar da:

- **Eskaintza teknikoa**, hau da, agiri honen 2. puntuari xedatutakoaren arabera eman beharreko zerbitzuen eta horniduren azalpen memoria; memorian, honako datu hauek zehaztu behar dira: lan metodoa eta zereginen antolaketa, erabiliko diren produktu eta tresnak, eta enpresak zerbitzuak modu eraginkorrean emateko proposatzen dituen giza baliabideak, baliabide pertsonalak eta antolaketakoak. Halaber, enpresak, oro har, duen langile egituraren eta bulegoak garbitzeko lanetan izandako esperientziaren azalpena ere egin behar da.
- **Eskaintza ekonomikoa**, agiri honen 2.1 puntuari adierazitako garbiketarako zerbitzurako proposatutako prezioa (BEZik gabe) zehaztuta, eta lan kostuen, egiturazko kostuen eta beste kostu batzuen aurrekontuak banakatuta. Agiri honen 2.2 puntuari eskatutako kontsumigarri bakoitzaren hornitzeko proposatzen den prezioa bereiz adierazi behar da, litroko prezioa (BEZik gabe) adierazita likidoetan, metroko prezioa biribilketan eta aleko prezioa poltsetan, tisuetan eta abarretan, betiere eskaintzak alderatu ahal izateko. IV. eranskinetako ereduaren arabera izan behar du, eta sinatuta aurkeztu behar da.
- **Langileen egiturari eta bulegoaren garbiketarako zerbitzuetan izandako esperientzia urteei buruzko erantzukizunpeko adierazpena**. III. eranskinaren arabera bete behar da. Erantzukizunpeko adierazpen

honen xedea da agiri honen 6. puntuan aipatzen diren automatikoki kuantifika daitezkeen b) eta c) balorazio irizpideak baloratu ahal izatea.

Finkatutako proposamen ereduarekin eta adierazpen hauekin bat ez datozen proposamenak baztertu ahal izango dira.

8.- KONTRATAZIOKO EPAIMAHAI

DEMAk kontratazioko epaimahai bat sortuko du erakundeko zuzendari eta teknikariek, eta hautagaitzak baloratuko dituzte. DEMAko gerentea izango da kontratazio mahaiko burua, eta adjudikazioa sinatuko du.

Prozesu horri buruzko erreklamaziorik izanez gero, DEMAko gerenteari zuzendutako gutun bidez egin beharko da.

9.- HAUTAKETA EPEAK

Hautaketa ahalik eta azkarren egingo da, eta adjudikazio prozedura hau 2020. urtea amaitu baino lehen ebazteko konpromisoa hartzen du DEMAk.

10.- PROZEDURA ADJUDIKATZEA

Baldintza agiri honetan argitaratutako irizpideetan oinarrituta baloratuko du kontratazio epaimahaiak proposamen bakoitza, eta kontratazioa bere ustez onena den proposamenari adjudikatuko dio edo, bestela, prozedura hutsik geratu dela adieraziko du, bere ustez proposamenek ez badituzte betetzen zerbitzuaren betekizunak. Kasu batean zein bestean, lehiakideek ez dute inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubidea izango.

Prozedura ez bada hutsik geratzen, kontratazio epaimahaiak baldintza agiri honetan zehaztutako balorazio irizpideen arabera adjudikatuko du prozedura. Irizpide ekonomikoaren barruan, eskaintako zerbitzuetarako ondoriozta daitekeen balioari gehien egokitzen zaion eta zentzuzkoa den proposamena hautatuko du.

DEMAk posta elektronikoaren bitartez emango die prozeduraren ebazpenaren emaitzaren berri prozeduran parte hartu duten erakunde guztiei; DEMAren kontratatzailearen profilean ere argitaratuko du. Erakunde adjudikaziodunak, gainera, mezu elektronikoari atxikita, kontratua adjudikatzeko dokumentua jasoko du; horretaz gain, kontratua sinatzeko epea zein den eta zerbitzuak ematen noiz hasi behar duen ere jakinaraziko zaio.

Adjudikazioa egin eta 5 eguneko epean, kaudimena eta irizpide ebaluagarriak egiaztatzeko balio izan dioten eta egin dituen erantzukizunpeko adierazpen guztiak egiaztatuta geratzeko beharrezkoa den dokumentazio ofiziala aurkeztu behar du enpresa adjudikaziodunak. Beste alderdiren bat frogatzeko beharrezko iritziz gero, dokumentu gehiago ere eskatu ahal izango ditu DEMAk. Enpresa adjudikaziodunak ez baditu egindako adierazpenak kontratua sinatu baino lehen egiaztatzen, DEMAk enpresa horri egindako adjudikazioa balio gabetuko du, eta hurrengo eskaintza onenari adjudikatuko dio zerbitzua.

11.- LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA ETA ENPRESA JARDUERAK KOORDINATZEA

DEMAren garbiketa zerbitzua egiten duen enpresak Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloan zehaztutakoa bete beharko du, arau orokorrean, "Laneko Arriskuen Prebentzioari" buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean eta haren eguneratzeetan honako gai hauei buruz xedatzen denari jarraikiz:

- Laneko arriskuen eta osasunaren prebentzioaren planifikazioa, eta horren aldizkako ebaluazioa.
- Prebentzioko neurrien sorta koherente eta orokorra antolatzea, eta horien eraginkortasuna kontrolatzea.
- Langilearekiko xedatutako betebeharrak betetzea, lan arriskuen arloan parte hartzeko, komunikatzeko, prestakuntza jasotzeko eta informazioa jasotzeko eskubideari dagokionez. Horrela, bada, plantillak eta, hala badagokio, –plantillaren irizpideen eta lan baldintzen arabera– lan osasunari dagokion ordezkari sistema jakin behar dute zer arriskuen eraginpean egongo diren (dauden arriskuak) eta arrisku horiei nola aurrea hartu (kaltearen aurreko prebentzio aktiboa).

Enpresa adjudikaziodunak kontratu honetarako Lan Arriskuen Prebentzioko Plan berezia aurkeztu beharko du, eta esleitutako langileen prestakuntza egokia zehaztu.

Era berean, DEMAk arriskuen ebaluazioa aurkeztuko du, Enpresa Jarduerak Koordinatzeko betebeharra betetzearren.

12.- KLAUSULA SOZIALAK

Lehentasuna dibertsitate funtzionalaren kasuan. Bi enpresa lizitatzaileraren edo gehiagoren artean berdinketa gertatuz gero, adjudikaziorako oinarri diren irizpideen ikuspegitik begiratuta honako proposamen honi emango zaio lehentasuna: kaudimen teknika egiaztatzeke garaian, plantillan 100eko 2tik gorako desgaitasuna duen langileren bat edo batzuk plantillan d(it)uen enpresak aurkeztu duen proposamenari.

Berdinduta geratu diren enpresa lizitzailearen artean, batek baino gehiagok egiaztatzen badute 100eko 2tik gorako desgaitasuna duten pertsonekin lan harremana dutela, kontratua adjudikatzean lehentasuna izango du plantillan desgaitasuna duten langileen ehuneko handiena duen enpresa lizitzaileak.

Lehentasuna berdintasunaren arloan. Bi proposamenen edo gehiagoren artean berdinketa gertatuz gero, adjudikazioan lehentasuna izango dute kaudimen teknika egiaztatzeke garaian honako baldintza hauek betetzen dituzten enpresa edo erakundeek aurkeztutako proposamenek:

- “Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunerako erakunde laguntzailea” dela dioen eta erakunde publiko batek egin duen ziurtagiria izatea.
- Berdintasun Plan bat diseinatu eta aplikatua izatea.
- Lanean diskriminazio mota oro saihesteko neurriak, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna lortzeko neurriak edo lana, norberaren bizitza eta familia uztartzeko neurriak hartu izana egiaztatzea.

Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeari dagokionez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta/edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritako neurriak betetzea.

13.- DATUAK BABESTEIA

Erakunde adjudikaziodunak datu pertsonalak babesteari buruzko indarreko arauak betetzen dituela bermatuko du eta, bereziki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra, hemendik aurrera, DBEO) indargabetzen duena;

eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoa (hemendik aurrera, DPBEBLO).

14.- HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA, TOKIA ETA MODUA

Epeari dagokionez, iragarkia BAOn eta DEMAren kontratatzailearen profilean argitaratzen denetik **15 egun natural** izango da.

Modua: Hautagaitzak paperean aurkeztu behar dira, gutun azal baten barruan; gutun azalak honako testu hau izango du kanpoaldean: “**DEMA-ENPLEGU ETA EKINTZAILATZA FORU AGENTZIAREN EGOITZA SOZIALAREN ETA BULEGOEN GARBIKETA ZERBITZUA EMATEKO HAUTAGAITZAREN PROPOSAMENA**” Gutun azalean, enpresaren SOZIJETATE IZENA eta IFZ identifikatu behar dira, baita arduradunaren izen-abizenak eta kargua ere. Gutun azala aurkeztean, hartu izanaren agiria emango zaio enpresari, Demako bulegoetan sartu izanaren zigilu eta guzti.

Gutun azalaren barruan beste bi gutun azal egongo dira, itxita, agiri honetan zehaztutako dokumentazioarekin, eta honela identifikatuta: A GUTUN AZALA eta B GUTUN AZALA.

Aurkezteko tokia: DEMAren bulegoetan (Barakaldoko Elkartegia eraikina, Fanderia kalea 2), 08:00etatik 14:00etara bitarte.

15.- KONTSULTAK EGITEKO BIDEA:

Posta elektronikoaren bitartez: contratos@dema.eus

Interes orokorreko hartzen diren kontsultei emandako erantzunak DEMAren kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.

I. ERANSKINA – GAITASUNAREN ETA KAUDIMENAREN ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA

“DEMA-ENPLEGU ETA EKINTZAIETZA FORU AGENTZIAREN EGOITZA SOZIALA ETA BULEGOAK GARBITZEKO ZERBITZUA”

(Aldi baterako enpresa elkarteak daudenean, enpresa kide bakoitzak bere erantzukizunpeko aitortpena aurkeztuko du)

.....jaun/andreak
(helbidea:.....; NAN:.....; telefonoa:.....; e-maila:.....), gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoarekin, bere izenean edo.....ordezkatuz (helbidea:.....; telefonoa:.....; IFK:.....)

BERARIAZ ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

1.- Jarraian adierazten diren datuak zintzoki bat datozela lizitzaileak onartuta eta adierazitako Erregistroan gordailututa dituen urteko kontuetan jasotakoarekin (amaitutako azken bi urteetako datuak).

Kontuak gordailututa dauden ERREGISTROA	EKITALDIA	URTEKO NEGOZIO BOLUMENA (BEZik gabe)

2.- Lizitzaileak, baliozko arrazoi batengatik, amaitutako azken hiru urteetatik bolumen handieneko urteko kontuak ez dauzkala onartuta eta gordailututa (adibidez, dagokion erregistroan kontuak aurkezteko betebeharrak ez duelako edo enpresa sortu berria delako).

3.- Bere kaudimen ekonomikoa eta finantzariora frogatzen duela, erantzukizunpeko aitortpenaz gain, honako hauek ere aurkeztuta: balio erantsiaren gaineko zergaren aitortpenaren 303 eta/edo 390 ereduak edo balioak, edo sozietateen gaineko zergaren aitortpenaren 200 ereduak edo balioak, arrazoi honegatik (markatu dagokiona X batez):

- Enpresaburu indibiduala izatea, kontuak Merkataritza Erregistroan inskribatzeko obligaziorik gabe.
- Aurreko atalean adierazitako balizko arrazoia.

BEZari edo sozietate zergari buruzko dokumentazio erantsia	EKITALDIA	URTEKO NEGOZIO BOLUMENA (BEZik gabe)

4.- Tokiko zergen arloan indarrean dagoen eta aplikagarria den araudiaren arabera, eta, zehazki, ekonomia jardueren gaineko zergaren araudiaren arabera, zerga horretan jarraian adierazitako epigrafeetan alta emanda egotearen aitortpena aurkeztu behar duela, eta ez dagoela baja emanda gaurko egunean:

Epigrafea	Kontzeptua

5.- Honako egoera hauek dagoela (markatu dagokiona X batez):

- Zerga ordaindu behar du, eta erkatutako azken ordainagiri(ar)en kopia(k) erantsi d(it)u.
- Zerga ordaintzetik salbuetsita dago, ekonomia jardueren gaineko zergari buruzko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauaren Testu Bateginaren 5.1.g) artikuluan adierazitakoagatik.
(Jarduera abiatzen duten subjektu pasiboak, jarduera garatzen den lehen bi zergaldietan).
- Zerga ordaintzetik salbuetsita dago, ekonomia jardueren gaineko zergari buruzko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauaren Testu Bateginaren 5.1.h) artikuluan adierazitakoagatik.

(2.000.000 eurotik beherako eragiketa bolumena duten subjektu pasiboak).

- Zerga ordaintzetik salbuetsita dago, irabazizkoak ez diren erakundeen zerga araubideari eta mezenasgoari emandako zerga pizgarriei buruzko otsailaren 24ko 2004/1 Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoagatik.
- Beste salbuespen batzuk.

6.- Erantzukizun zibil profesionaleko aseguru bat duela kontratatuta, gutxienez 600.000 eurokoa.

7.- Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritakoaren arabera kontratatzeko debekurik ez duela eta aurkeztutako proiektuari ekiteko behar besteko gaitasun juridiko eta jardutekoa eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioa dituela. Era berean, berariaz adierazten du egunean dituela zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai eta laneko arriskuei eta ingurumen politikei buruzkoak ere, eta DEMARi aukera ematen diola, edozein unetan, aurkeztutako frogagiriak egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen duen jatorrizko dokumentazioa eskatzeko eta, beharrezkotzat jotzen bada, instalazioak bisitatzeko.

Horrela jasota gera dadin,

Tokia, data eta sinadura.

II. ERANSKINA - EMANDAKO ZERBITZUEN EDO EGINDAKO LANEN ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA

“DEMA-ENPLEGU ETA EKINTZAILATZA FORU AGENTZIAREN EGOITZA SOZIALA ETA BULEGOAK GARBITZEKO ZERBITZUA”

.....jaun/andreak
(helbidea:.....; NAN:.....; telefonoa:.....; e-maila:.....), gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoarekin, bere izenean edo.....ordezkatuz (helbidea:.....; telefonoa:.....; IFK:.....)

BERARIAZ ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

- 1.- Behar besteko ezagutza teknikoak, eraginkortasuna, esperientzia eta fidagarritasuna dituela, bai eta agiri honetako 2. puntuan deskribatutako zerbitzua emateko antolatzeke gaitasun nahikoa ere.
- 2.- Kontratuaren xede diren zerbitzuen edo lanen izaera bera edo antzekoa duten zerbitzuetan edo lanetan duen esperientzia, 2018. eta 2019. urteei dagokiena, zerrenda honetan adierazitakoa dela (nahikoa da urteko eskatzen diren 40.000 €-ra arteko zerbitzuak adieraztea):

ZERBITZUA EDO LANA	Erakunde edo enpresa hartzailea (*)	Gauzatutako zenbatekoa 2018 (BEZik gabe)	Gauzatutako zenbatekoa 2019 (BEZik gabe)
Urtean gauzatutako ZENBATEKO OSOA			

(*) Enpresa adjudikaziodunak, aitortutako zerbitzuen hartzaile diren enpresek/erakundeek emandako egiaztagiria aurkeztu beharko ditu.

Horrela jasota gera dadin,

Tokia, data eta sinadura.

III. ERANSKINA – LAN ALDERDIEI ETA BESTELAKOEI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA

“DEMA-ENPLEGU ETA EKINTZAILETZA FORU AGENTZIAREN EGOITZA SOZIALA ETA BULEGOAK GARBITZEKO ZERBITZUA”

(Aldi baterako enpresa elkarteak daudenean, enpresa kide bakoitzak bere erantzukizunpeko aitortpena aurkeztuko du)

.....jaun/andreak
(helbidea:.....; NAN:.....; telefonoa:.....; e-
maila:.....), gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoarekin, bere izenean
edo.....ordezkatuz (helbidea:.....; telefonoa:.....;
IFK:.....)

BERARIAZ ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

Langileen egiturari dagokionez, enpresak langile (kopurua adierazi) dituela kontratatuta eta Gizarte Segurantzaren alta emanda, 2020ko azaroan. Langileen kopurua frogatzeko, hilabete horretako RLC (Kotizazioen Likidazio Ordainagiriak) eta RNT (Langileen Zerrenda Nominala) aurkeztuko ditu, adjudikazioduna izanez gero.

Esperientzia urteei dagokionez, enpresak urte (kopurua adierazi) daramatzala ekonomia jardueren gaineko zergan (EJZ) alta emanda eta bulegoak garbitzeko zerbitzuengatik fakturatzen. Hori frogatzeko, agiri fiskalak aurkeztu ditzake.

Lan araudia betetzeari dagokionez. Eskaintza prestatzeko, kontuan hartu dela Europar Batasuneko Zuzenbidean, Estatuko Zuzenbidean eta hitzarmen kolektiboetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eta ingurumen, gizarte eta lan arloan ezarritako araudia, bai eta Estatua lotesten duten ingurumen, gizarte eta lan arloko nazioarteko Zuzenbideko xedapenak ere, kontratuaren gauzapenean parte hartuko duten langileei aplikatu beharreko lan eskubideak bermatuz. Eta enpresak lan, gizarte segurantza eta laneko arriskuen prebentzioaren arloetan indarrean dagoen araudi guztia betetzen duela.

Enpresak onartzen du produkzio kate osoan oinarritzko lan eskubideak errespetatzeko betebeharra, bai eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen funtsezko konbentzioak betetzea ere, eta, bereziki, honako hauek.

- 29. eta 105. konbentzioak, bortxazko lana desagerrarazteari buruzkoak.
- 87. eta 98. konbentzioak, askatasun sindikalari, elkartzeko askatasunari eta negoziazio kolektiboari buruzkoak.
- 100. konbentzioa, balio bereko lanaren truke gizonen nahiz emakumezkoen eskulanak ordainsari bera izateari buruzkoa.
- 111. konbentzioa, enplegua lortzean eta lan baldintzak ezartzean arraza, kolore, sexu, erlijio, iritzi publiko, jatorri nazional edo jatorri sozialagatik emandako diskriminazioaren aurkakoa.
- 138. konbentzioa, haurren esplotazioa eta lana abolitzeari buruzkoa.
- 182. konbentzioa, haurren lan modurik okerrenak debekatzeari eta horiek ezabatzeko berehalako ekintzari buruzkoa.

Jazarpena prebenitzeko eta arlo horretako erreklamazioak bideratzeko legezko betebeharrari dagokionez. Kontratuaren esleipendun izanez gero, eta 3/2007 Lege Organikoak, martxoaren 22koak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoak 48. artikuluan ezarritakoa betez, onartzen duela sexu jazarpenera eta generoagatiko jazarpenera saihesten duten lan baldintzak sustatzeko betebeharra, bai eta jazarpen hori prebenitzeko prozedura espezifikoak ezartzeko eta halakorik jasan dutenen salaketak edo erreklamazioak bideratzeko ere. Era berean, konpromisoa hartzen duela kontratuaren indarraldiaren edozein unetan kontratuaren arduradunaren aurrean egin behar hori betetzen dela frogatzeko, hark hala eskatzen badio.

Hitzarmen kolektiboari eta soldatari dagokionez. Kontratuaren xede den jardueran egiten duten langileei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboak, esleipendun izanez gero, honako hau dela:

Hitzarmenaren izena:

Argitaratuako Aldikari Ofizialean

Argitaratze data:

Kontratua gauzatzen den bitartean, hitzarmen kolektibo sektorialean jasotako soldata ordainduko zaiola langile bakoitzari, dagokion kategorian profesionalaren arabera, eta ez dela sekula ordainduko hitzarmenean adierazitakoa baino soldata txikiagorik.

Enpleguari eta pertsonalari eusteari dagokionez. Zerbitzuak emateko erabiliko den langile kopurua, kontratu tipologia eta lanaldia (urteko lanorduetan adierazita) honako hauek direla:

Langile kopurua:

Kontratu mota:

Urteko lanordu kopurua:

Langileak subrogatzeko betebeharrari dagokionez. Badakiela DEMAn garbiketa zerbitzua ematen zuten langileak subrogazioz bere gain hartu behar dituela, eta langile horien antzinatasuna errespetatu behar duela lan ondorioetarako. Gai horri buruzko informazioa DEMAk emango du.

Era berean, bere gain hartzen duela kontratuari Bizkaian egoitza sozial edo establezimendu bat atxikitzeo betebeharra, zerbitzua emateko behar diren lanak bertan egiteko.

Nolanahi ere, kontratua behar bezala gauzatzen dela bermatzeko beharrezkoak diren harremanak eta komunikazioak bideratzeko, solaskide bat izendatuko da, kontratua gauzatzeari buruzko komunikazioak jasotzeko. Solaskideari dagokio DEMAk zerbitzua emateari buruz dituen galderak jakinaraztea zerbitzua gauzatzeko ardura duten pertsonen. Solaskidearen izen-abizenak eta helbide elektronikoa:

Merkataritzako Kodearen 42.1 artikuluari dagokionez. Ordezkatzen duen enpresa:

EZ DAGO Merkataritzako Kodearen 42.1 artikuluko kasuren batean.

Merkataritzako Kodearen 42.1 artikuluko kasuren batean DAGO.

Erantzuna baiezkoa izanez gero:

Kontratua adjudikatzeko prozeduran EZ DU PARTE HARTZEN, talde berekoak izanik, edo Merkataritzako Kodearen 42.1 artikuluan ezarritako kasu alternatiboren bat betez gero, banakako proposamenak aurkezten dituzten enpresekin.

Kontratua adjudikatzeko prozeduran PARTE HARTZEN DU, talde berekoak izanik, edo Merkataritzako Kodearen 42.1 artikuluan ezarritako kasu alternatiboren bat betez gero, banakako proposamenak aurkezten dituzten enpresekin. Jarraian, enpresa horien zerrenda:
IFZ eta sozietate izena

Konpromisoa hartzen duela baldintza teknikoaren eta administratiboaren agiri honetan jasotako eta enpresak bere proposamen teknikoan proposatutako gauzatze baldintza guztiak betetzeko.

Horrela jasota gera dadin,

Tokia, data eta sinadura.

IV. ERANSKINA - PROPOSAMEN EKONOMIKOA

“DEMA-ENPLEGU ETA EKINTZAILTZA FORU AGENTZIAREN EGOITZA SOZIALA ETA BULEGOAK GARBITZEKO ZERBITZUA”

(Aldi baterako enpresa elkarteak daudenean, enpresa kide bakoitzak bere erantzukizunpeko aitortpena aurkeztuko du)

.....jaun/andreak
(helbidea:.....; NAN:.....; telefonoa:.....; e-maila:.....), gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoarekin, bere izenean edo.....ordezkatuz (helbidea:.....; telefonoa:.....; IFK:.....)

BERARIAZ ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

1) Agintzen duela “**DEMA-ENPLEGU ETA EKINTZAILTZA FORU AGENTZIAREN EGOITZA SOZIALA ETA BULEGOAK GARBITZEKO ZERBITZUA**” emango duela, euroko prezioan (letraz eta zenbakiz idatzi), gehi % 21eko BEZa, bi urteko epean. Prezioan kontzeptu guztiak sartzen dira, honako hauek barne: zergak (BEZa izan ezik), gastuak, edozein zerga arloko tasak eta arielak, eta kontratistaren irabaziak. Onartzen du baldintza agirietako “2.1. Kontratuaren helburua” puntuan deskribatutako zerbitzu guztiak emango dituela, hemen proposatutako prezioan.

Lehen aipatutako prezioa zerbitzu osoarena da, eta honako partida hauetan banakatzen da:

Lan kostuak:
Egitura kostuak:
Bestelako kostuak:

2) Baldintza agirietako 2.2 puntuan adierazitako eta eskaintza teknikoan deskribatutako **HORNITU BEHARREKO KONTSUMIGARRIEI** dagokienez, honako prezio hau proposatzen dela litroko, metroko edo unitateko:

	PREZIOA (BEZik gabe)
- Komuneko paper industrialak (metroa)	
- Eskuak lehertzeko bobina (metroa)	
- Eskuak garbitzeko gela, banagailurako (litroa)	
- Zakarrontzi tamainako zabor poltsak (25 l) (unitatea)	
- Ontzi tamainako zabor poltsak (50 l) (unitatea)	
- Likido hidroalkoholikoa (litroa)	
- Paperezko mukizapiak (unitatea)	

3) Ezagutzen dituela adjudikazio prozeduraren baldintzen agiria eta adjudikazio hau arautuko duten gainerako dokumentuak, eta berariaz eta osorik onartu eta men egiten diela.

4) Ordezkatzen duen enpresak indarrean dagoen araudiak enpresa ireki, instalatu eta jardunean jartzeko ezartzen dituen eskakizun eta eginbehar guztiak betetzen dituela.

Horrela jasota gera dadin,

Tokia, data eta sinadura.